



# EGP

2012ko maiatza - 11. zenbakia

Goizuetako  
aldizkaria



## Euskaraz bizi eta ari

herri  
euskaldunak  
aitzindari



ONGI ETORRI  
GOIZUETAN ERE  
EUSKARAZ



# zenbaki honetan



# aurkibidea

• **Argitaratzailea:**  
Goizuetako kultur taldea eta Goizuetako Udalaren Euskara Zerbitzua

• **Diseinua:**  
Allende Arnaiz

• **Maketazioa:**  
astidiseinua.com



- **3** ..... Aurkezpena
- **4-5** ..... Atzera begira. 1998
- **6-7** ..... "Urrutine"
- **8-10** ..... Azaro kulturala
- **11** ..... Goizueta bertsotan
- **12-13** ..... Gazte asanbladan  
20. urteurrena
- **14-15** ..... Goizueta iruditan
- **16-19** ..... Goizuetarrak Txilen
- **20-21** ..... Amaia Lujanbiori elkarrizketa
- **22-23** ..... UEMA
- **24** ..... Hitz zahar berri
- **25** ..... Ezetz asmatu
- **26** ..... Ipuin erotikoa
- **27** ..... Inkesta
- **28** ..... Zure txanda





# Euskaraz bizi eta ari herri euskaldunak aitzindari



ONGI ETORRI  
GOIZUETAN ERE  
EUSKARAZ

**X**APOren hamaikagarrena. Hamaika zenbaki argitaratu ditugu, eta hamaika kontu jaso ditugu aldizkarian. Bai baitute Goizuetak eta goizuetarrek zer kontatua.

Zenbaki honetan, ohi bezala, era askotako kontuak eta jakingarriak dituzu. Irakurtzeko, eta baita ikusteko ere. Denak ere interesgarriak eta garrantzitsuak ziur asko, baina bat azpimarratu nahi dugu aurkezpen honetan: Udalerri Euskaldunen Mankomunitatea (UEMA), eta aurtan Goizuetan egingen den UEMA eguna. Badira urte batzuk Goizuetako Udalak UEMA eguna he-

rrira ekarri nahi zuela, eta azkenean egun hori antolatzea egokitu zaio gure herriari. Euskaraz bizi eta ari, herri euskaldunak aitzindari. Horixe da UEMA egunak aurtan izanen duen leloa, eta horixe aldizkariari azalean eman nahi izan diogun titularra, egia handia dela iruditzen baitzaigu.

Euskaraz bizi den eta bizi nahi duen herria dugu Goizuetan, eta euskarari etorkizuna emateko lanean aitzindaria dugu, beste hainbat herri euskaldunekin batera. Eta XAPO aldizkaria bera, besteak beste, euskaraz bizitzeko ahalegin horren emaitza ere bada, bete-be-

tean sartzen baita nahi eta gogo horretan.


Ez da UEMA aldizkariako gai bakarra, jakina, eta baditugu beste atal batzuk. Ohikoak alde batetik: atzera begira, euskara, azaro kulturalaren kronika, erreportajeak, Goizuetako irudiak, argazki zaharrak, ipuin erotikoa, inkesta, zure txanda, Gazte Asanbladaren 20. urteurrena... Eta baita atal finkoa izateko asmoz sortu berria den atal berria ere: bertso txokoa.

Goizuetarrek esanak eta eginak aurkituko dituzu hurrengo orrialdeetan, eta herriarekiko zure ezagutza eta atxikimendua gizentzen lagunduko dutela espero dugu. Goza ezazu XAPOren hamaikagarrena, eta etor daitezela beste hamaika.





Haizea taldekoek eskuratu zituzten kantu txapelketako sari gehienak.



### Eskolarteko bertso txapelketa


Nafarroako txapeldun Hodei iaz gertatu zen eran beste pauso gehio eman du bere bertsoen karreran

# 1998an gertatu zen

**O**lentzeroren eta Errege Magoei herrian egindako harre-  
raren berri ematen zuen Ttipi-  
tapa aldizkariak 1998. urteko  
lehen zenbakian. Juan Miel Apez-  
txeari elkartasuna adierazteko Iruñe-  
ko espetxe aurrean egindako kon-  
zentrazioa ere aipagai zen. 50 lagun  
bildu ziren bertan.

Urte horretako otsailaren 4an ospatu zen Goizuetan lehenengo aldiz Santa Ageda bezpera, Musika Eskolaren eskutik hain zuzen. Inauteriak ere otsailean gehienetan bezala, hagitxak arrakastatsuak suertatu omen ziren gainera. Bien bitartean, 120 milioi pezetako Udal aurrekontua onartu zuten Herriko Etxean, eta Mixel Tomasena hautatu zuten bazkideek Umore Ona Elkarteko presidente posturako.

Olasoko Estanis Perurena eta Amaia Lujanbio lasterkalari gaztea elkarriketatu zituen martxoan Ttipi-ttapak. Lehenengoa, mozorroen taldean 15 urte zeramatzalako betaranoena zen alde handiz, eta Amaia,



berriz, bere 16 urterekin kadete mailako Euskal Herriko kros txapelketa irabazi berria zuelako.

Artea eta kultura kanpainaren urteko ekitaldien berri ere martxoan eman zuen Udalak. Mikel Urdangarin abeslariaren emanaldia iragaritzen zen, besteak beste. Herriko pilotariak, bestalde, noiznahi lortzen zituzten zapelak orduan ere. Martxoan zen Umore Ona elkarteak Nafarroako klubaren arteko txapelketa irabazi zuenean. Juantxo Apezetxeak, Aimar Olaizolak eta Almandoz lesakarrak osatu zuten talde irabazlea.

Apirilean ere garaipenez bete zen herria, Iruñean ospatu zen Nafarroako kantu txapelketako sari handienak gure eskolako ikasleek lortu baitzituzten. Taldeka argazkiko Haizea garaile, bikoteka Mainer Ansa eta Naiara Arozena, eta bakarlarrietan berriz, Mainer Ansa.

Amaia Lujanbio Euskal Herriko kros txapelduna.



## Literaturgintza lehiaketa

Itsaso Lujanbio, Eneritz Arozena eta Alaitz Eskuderok, Nafarroako Gobernuak antolatzen duen literaturgintza lehiaketan saridunak suertatu dira. Marcotegi kontseilariak eman zizkien diplomak eta eskupekoak Iruñean ekainaren 19an.



## Truke eta mus txapelketak

Juli eta Korok irabazi zuten Umore Onako truke txapelketa Patxi Bakero eta Patziku Goizuetaren kontrako finalean. Musean berriz, Joxeantonio Apezetxea eta Manuel Ansa suertatu ziren garaile, eta Juan Apezetxea eta Aitor Mendizabal bigarren.

Maiatzean lehenengo Dantzari txiki eguna ospatu zen herrian, eta bost talde ezberdineko 100 haur eta gaztetxok parte hartu zuten, tartean Umore Ona jakina. Yolanda Barcinak eta Rafael Gurreak, bestalde, babes ofizialeko etxebizitzak eta depuradora inauguratu zituzten. Juli eta Korok irabazi zuten berriz Umore Onako truk txapelketa.

1998ko udaberri-udaran gainbegirada emanaz esan dezakegu Hodei Lujanbiok Nafarroako eskolarteko txapelketa irabazi zuela, eta argazkiko Alaitz, Itsaso eta Eneritzek, Nafarroako Gobernuak antolatzen zuen literaturgintza lehiaketako sari nagusiak jaso zituztela Iruñean. Dena den, orain bezala orduan ere Amabirjinetako festak izan ziren uda osoko protagonista printzipalenak. Egitarau aberatsa eta jendearen partehartze ikaragarria izan omen zuten jai horiek ttipi-ttipak azpimarratzen zue-nez.

Festa ondoren iraila etorri zen, eta horrekin batera herriko eskola haurrez bete zen. 86 herritar eta 4 aranoar ma-



Estanis Perurena Olaso izan zen Mozorroen taldeko kiderik beteranoena.

trikulatu ziren 1998-99 ikasturtean. Negu horretan paratu beharra zen gainera berogailu sistema berria eskolan, 5.700.000 pezetako aurrekontuarekin.

Udazkena ontto garaia izaki, II. Jardunaldi Mikologikoak ospatu ziren irailean, eta garai berean, Eliza inauguratu zen bi urtez lanean ari eta 55 milioi pezeta gastatu ondoren, horietatik 18,5 milioi herritarrek emanak. Musika Eskolak ere ikasturteari ekin zion, 50 ikaslerekin kasu honetan.

Urrian ere ekitaldi asko antolatu ziren herrian, (zaharren eguna, Herri Olinpiadak...) baina hunkigarriena Juantxo Apezetxeak jasotako omenaldia izan zen. Ilunabarreko frontoiko emanaldiaren ondoren 120 lagun bildu ziren elkartean, Juantxok merezi zuten neurriko eguna eta gaua, ederki borobilduz.

Ez zion herriak nolana hiko agurra eman 1998. urteari. Sortu berria zen kontseilua erakundeak Hego Euskal Herriko eta Lapurdiko hiriburuetakotako futbol zelaia betetzeko erronka plaza-ratu zuen abenduaren 26an Bai Euskarari esateko. Ba, Goizuetak ekarpen paregabea egin zion helburu horri, goizuetarraz betetako 3 autobus joan baitziren Iruñeko Sadarreko harmailtara.



# "URRUTINE"

Urrutine da Goizutako plazan kokatuta don itxe bat, guk taberna bezela izaotu duna. 1883. urtean ere taberna omen tzen, izan ere, udaletxan Lazaro Salaberriaren izenen azaldutako faktura batek hala ziurtatzen du.

1896. urtean, dirudienez, Urrutineko pareta erabiltzen zen "pilota-leku edo pilota plaza" bezala; hori ere udaleko paperetan azaltzen da. Udalak 30 pezeta urte guziko ordainduz alokatzion Lazaro Salaberriari Urrutineko pareta.

Lazaro hil ondoren Urrutineko etxe-ko andrea berriro ezkondu zen, Pio Nabarrokin. Gizon hori oso xelebrea omen tzen, "atabaleroa, txistularia", eta bandoa bukatzen omen zuen hau esanez: "eta Urrutinen, salda goxo goxo bada-go", URRUTINE tabernari propaganda eginez.

Garai haietan apopiloak izaten omen zittuzten Urrutinen: fiestatako musikoak eta abar... Baita mediku bat ere, bertan kontsulta pasatzen zuena. Posta zerbitzua ere bertan eman izan omen zuten. Eta bertsozari etortzen zirenean, Urrutineko eta Bibianoko balkoitik botatzen zittuzten bertsoak.


1949. urtean Manolo Etxeberria bertako alabakin ezkondu zen, Lutxi Salaberriarekin.

Garai hartan apopilo zeudenak gutxi zian eta itxekok bezala tratatzen zittuzten eta baserriarren batek beharra izan ezker onartua izaten zen "gaixotasunagatik edo...". Afarik ere ematten zittuzten, norberak osagaiak eraman eta tabernakoak prestatu, bereziki ezkon aurreko afarik.

Dirudienez, beti izandu da geldi lekua.

Taberna goizeko 6etan irekitzen zuten. Ollinera, Leitzara eta Añarbera... joaten zian langilekin betetzen zen taberna, pattarra, loidi eta eltzeko kafea bertan hartuz. Beranduago, 7ak aldera, mendiko langilek, mandazarik eta abar azaltzen omen zian. Batzuetan ordu bata eta erdik ingururuntxi egiten omen zuten taberna, etxeko lanak

itteko. Hamar eta erdiak aldera berriro ireki eta ordun, herriko jendea hasten omen zen "txurik, kafeterako kafea eta noski kartatako partidak". Ilunabarren txikiterok....TXIKITOA...70 xentimo, eta KLARETEA... PZTA 1. Afal ondoren, kafek eta kopak hartu ondoren, berandu erretiratzen omentzian, 12k ingururuntxi, eta aste bukae-





Manolo Etxeberriak tabernan egindako aldaketa ikus daiteke argazkian.



Manolo Etxeberria, Pio Nabarroren garaiko argazki batean.



Aspaldi samarreko argazkia.



Ramon Etxebeste eta familia.

ran goizeko 3retan bapo-bapo egin ondoren.

1975eko ekainean Ramon eta Enarrek alokatu zuten taberna. Hauek ere seitu zuten otorduk ematen. Ramonek kontatua, jendeak oraindik bazuela otorduetarako osagaiak ekartzeko ohitura.

Anekdotak bat: "Arratseldeko 4ak aldera, tabernan kartetan ari zirela, dei baten bidez bomba abisoa, bertan zeon jenderi pasatu omen zuten abisoa, jendea parrez hasi, eta ezta muiitu ere".

1981. urtean Karmen eta Pili Narvartek alokatu zuten

taberna. Hauek berriz, otorduk eta bazkarik, alde zurretik eskatu ezker, zerbitzatzen zittuzten, "despedidak, fiestetan, kintoenak"; esan beharrekoa da kroketak eta mejioliak izugarritzko fama ona zaukatela, iandetakoz bazkal aurreko poteoan.

2012ko urtarrilaren 31n itxi zen "Urrutine" taberna. Bi etxebizitza itteko asmotan omen dira.

Badaude amajin bat kontu 4 pareta horien tartean, batzuk laburtuta aipatu ttu, baina denak ezinezkoa kontatzea hemen.



Hirugarren aldaketaren ondoren, tabernak berdin jarraitzen du

**1883. urten, LAZARO SALABERRIA**  
**1896. urten, LAZARO SALABERRIA**  
**1932-1949, urteetan PIO NABARRO**  
**1949-1975, urteetan MANOLO ETXEBERRIA**  
**1975-1981. urteetan RAMON ETA ENAR**  
**1981-2012. arte KARMEN eta PILI NARBARTE**



8

erreportajea

# Azaro kulturala

**U**rtero bezala, joan den urteko azaro kulturala ekitaldiz betea egon zen eta, esan beharrik ez dago, betiko moduan oso arrakastatsua izan zen. Hemen horixe erakutsiko dizuegu argazkien bidez.

## Azaroak 4, ostirala

Madalenako ermitaren diapositibak ikusgai, Jose Jabier Etxeberriaren eskutik.



## Azaroak 5, larunbata

Goizean, Madalenako ermitaren inaugurazioa.

Arratsaldean, ahozko ondarearen aurkezpena.

## Azaroak 11, ostirala

Umeentzako karoakea eta berendua, Goxalin.





**Azaroak 12,  
larunbata**

Gazte Asanbladaren 20. urteurrena. Aipatu behar da egun osoa hainbat ekitaldiz osatu zela, eta hau aurrera ateratzeko eta izan zuen arraskata izateko herri guztiak parte hartu zuela.



**Azaroak 18,  
ostirala**

Guatemalako argazkiak. Ixiar eta Itsasoren eskutik.



**Azaroak 25,  
ostirala**

Txondarra pixteko ekitaldia.



**Azaroak 19,  
larunbata**

Goizuetako etxeen izenak liburuaren aurkezpena, Udaletxeko Ganbaran.





# erreportajea

**Azaroak 26,  
larunbata**

FERIA



**Abenduak 3,  
larunbata**

“Buah Txabal” ba-  
karrizketa.



# Goizueta

## bertsotan

Xapo aldizkarian leku finkoa edukitako bokazioarekin jaio da begi aurrean daukazun orri hau.

Goizuetarrek bat batean bota edo idatzitako bertsoak edota gure herria aipatu edo gaitzat hartutakoak argitaratuko ditugu bertan. Eta atal honetako lehenbiziko bertsoak gaur egungo txapeldunak, Maialen Lujanbiok, Goizuetako lagun bati opari moduan idatzitakoak dira. Bizpahiru aldiz irakurtzea gomendatzen dizuet, esanahi eta mami handiko bertsoak baitira.

**Gaia, Goizueta: Teilatu gorriari.**

Harrizko pareta  
zurrumuru zaharren  
garraio erreka  
Hau herri bizi baten  
berezko hizketa  
lurraren txoko txiki  
zara Goizueta  
Mendiartearen kutxan  
bitxi bat gordeta

Hamaika kilometro  
magina bat pausu  
zuganako bideak  
luzeak dituzu  
baina heltzen den hura  
goxo hartzen duzu  
munduan begitara  
ahaztua usu  
maite zituztenentzat  
ahaztezina zu.

Ondorengo bertso hauek berriz, Manolo Arozenak bere herriari idatziak dira 1996. urtean. Bere iloba Irati Arozenak Nafarroako kantu txapelketan abesteko propio eginak. Lizartzako Kaxianoren doinu bati egokituak, hain zuzen. Zortziko handiko neurri-



1995eko txapela jasotzen.

koak dira eta bertsoetik bertSORA koplak antzeko estribilo edo leloa errepikatzen da.

Sarranen jaio zen Manolo Arozena 1949. urtean. 1988. urtean plazaratu zen lehenengo aldiz eta Nafarroako txapeldun suertatu zen lau urtez jarraian, 1990etik 1993ra, alegia.

### GOIZUETA

Nere herria goraiatzeko  
badaukat nahiko kemena  
hori da kabi maitagarria  
goxoa eta lerdena  
bizi nahiakin lehena ta oraina  
ia ia baduzu dena  
kantuan bidez egin nahi dizut  
merezi duzun omena

Goizueta, Goizueta  
Nere herritxo polita  
Bihotzean dut gordeta

Auzo bakoitzak bere mendiak  
mendi bakoitzak erreka  
kalea berriz xabal xabala  
jolasten mutil ta neska

helduak lana egiten dute  
tarteka baita ere festa  
pozikan bizi nahi dutenentzat  
leku oberikan ez ta.

Goizueta, Goizueta...

Futbolariak, pilotariak  
bertsolariak ere bai  
hain ospetsuak eta hainbeste  
ez dira izaten non nahi  
Euskera hutsez hitz egiten da  
ez dugu besterikan nahi  
Napatarr eta euskaldun gara  
guk esaten dugu lasai.

Goizueta, Goizueta...

Baserri txuri polittak dauzka  
garbi garbi itturriak  
bere menditan pazkatzen dira  
ardi, behi eta txerriak  
hauek ez dira historiako  
liburuaren orriak  
hori guztia eta gehiago  
bai dauzka nere herriak

Goizueta, Goizueta...



# Gazte asanbladan 20. urteurrena

**A**zaroaren 12a goizutar guzin burun geldituko den eguna izandu zen. Gazte Asanbladan 20. urteurrena zela ta izuarrizko ospakizuna zon prestatua eun guziko, eta euldia laun, eun earra pasatu ahal izan giñun bai herritarrek eta baita kanpotik torritako ehunka launek ere.

Goiz goizetik fiesta usaia hartu zun eunak. Hilabete luzeetako prestaketa lanen ondoren goizeko 10atan atek ireki zittun gaztetxek 20 urte hoitako argazki erakusketakin. Gaztetxeko

graffitik man zin seida, urte hoitako ametsei erreferentzia iñez “eskuz esku, urtez urte ametsak eraikitzen” leloa zamakin irudia margotu zutelarik eundi bittarten.

## Argazkik haundina plazan

Halere argazkik hobena etzon Gaztetxen eun hortan. Udaletxetik atetako argazki erraldoian herritar mordoskak hartu zuten parte. Bertan umorerik etzen falta izandu, behin biño gehiotan

jendetza haundia don tokitan in ohi den olatua errepikatu giñun “hauxe da ekipua, merezi du olatua!” oihukin alaittuz. Olatua lehertzeke zon oaindik eta triki poteokin seittuz Goiko frontoien olatua itsaso more bihurtu zen. 200 lagundik gotti elkartu giñan bazkarin pañulo morea lepon. Bazkal ondorengo patxaranakin batera, enkanten herriko artixtan artelanak eskuratzeko borrokan jardun zuten bazkaltiarrek, diru kopuruik haundina Iñigon plazako itturrin koa-drok eraman zularik.



Patxaranga.



Graffiti.



Argazki erakusketa.



Ekitaldia.

## Patxaranetik PatxaranG.A.ra.

Arratsaldea herriko gaztek propio eun hortaxeko sortutako PatxaranG.A. elektrotxarangak alaittu zun. Honek, beste hainbat kantan arten, Esne Beltzak eun hontarako intako kanta re bertsionatu zun, ta Mañoli re animatu zen bere puska kantatzera, ikuslen bihotzak taupaka patuz!

PatxaranG.A.k launduta alletu zen jendetza eskolako frontoien burutu zen euneko ekitaldi nausira. Bertan, 20 urte hoitan Gazte Asanbladak herrin intako lana azpimarratu zen, ta Gazte Asanbladak eskerrak man zkiten ibilbide hontan laundu duten he-

rritar guziri. Ekitaldi hunkigarri hau bukatutakon man zitzaien hasiera Des-kontrol, Esne beltza, Bongo Botrako eta 3 gabe2 taldek taularatu zittun kontzertu gauari.

## Jendetza eskolatako frontoien

Aspaldi halako jendetzaik kustekoa zen eskolatako frontoia. Daoneko sarrera guzik salduk zianez, aurreko astelehenen Gazte Asanbladak kontzertuk tokiz aldatzea erabaki zun, hala jende gehio kabittu ahal izateko. Ta erki asmatu re! Eunen bertan 658 sarrera saldu baitzian, denera 1.508 lagunek lepoño bete zuten kontzertu

gunea, aspaldiko urtetan hartu etzun itxura hartu zularik eskolatako frontoia. Beraz, ukatu ezinekoa izandu zen eun honek izandu zun arrakasta. Gaztetxea Dj Bullek alaittu zun iande goiza arte. Gaua festagirosano eta alaien jon zen ta askok iande eurdiarte re luzatu zuten fiesta.

Gazte Asanbladako kidek eskerrak eman nahi ttizteu aurreko hilabetetan lanen aittu zian guziri, bere laguntza eskaini ziuten launari, eunen bertan Euskal Herriko txoko guzitatik hurbildu zianari, biño batez ere Goizuta osori. Ongi antolatutako herri batek bakarrik lortu ditzake halako helburu haundik, beraz halaxe sei dezaun ttirriki ttarraka maldan gotti!





# Goizueta iruditan

**G**oizueta nolakoa den hitzez azaldu dezakagu, eta horretan saiatzen gara, besteak beste, XAPO aldizkarian, herriari eta herriatarrrei buruzko artikulak eta erreportaiak eginez.

Baina bada Goizueta nolakoa den azaltzeko beste modu bat: irudiak. Pilar Untxalori eskatu dizkiogu oraingoan argazkiak, gure herria irudien bitartez erakusteko. Argazki polit askoak, Goizuetaren nortasunaren berri ematen digutenak. Hementxe dituzue, gozatuko dituzuelakoan.







**A**ne Ziolakoa ta Unai Klaudionitxekoa 2011ko uztaileen jon zian Txile aldera beran ikasketak bukatzera. Daoneko Ane herrin da biño Unaik oaindik han seitzen do. Zertan ibili dian jakin nahi? Hemen-txe Xapoko espreski eskeinutako elkar-ritzeta!

• **Garai baten euskaldun asko jon zen Txilera bizimodu hobe baten bila. Zertara jon zian Ane ta Unai?**

**Ane:** Berez unibertsitateko azken urtea gauzatzera jon nitzan Txilera. Hala re, etzen arrazoi bakarria izandu. Orokorren beste bizimodu bat ta bizileku bat ezautzeko txirrintxa hori zen erabakia hartzera eramán niñona. Ez nikina zen kanpokoa hainbeste ezautzez gain, barne bidai izuarri bat e izain zela. Nere burua beste egoera batzutan

kusiz hobe ezautzeko aukera paregabea izandu da, nere mugak ta gaitasunak zein dian kusi, ta pertsona bezela hazi ta hezteko esperientzia oso aberasgarria.

**Unai:** Eztikit bizimodu hobeá san te litteken, diferentea behintzat dudik gabe. Ta honera hortara torri nitzala sain nuke, bizipen berrin bila, esperientzi ta egoera desberdinakin nere burua ikustera. Bai, ezdikinantzat, “ikastera noa!” exkuxa bat besteik etzen.

• **2011.urtea ikasle txiletarrantzat hezkuntza sistema ezbaian patzeko urtea izandu zen. Nola bizittu zute zuek ikasle muimentua?**

**Unai:** Txilera alletu giñanen, uztailla bukaeran, ikasle muimentua indartsu zon ta aldarrikapen ta borroka zurrun-

bilo baten sartu giñan; ikastetxek paron batzuk ta bestek toman (okupatuk), osteunero martxa jendetsuk, beti gas-lakrimogenakin ta kontenedore erre batzudin bukatzen zutenak, kazerolazok auzotan... Unibertsitate aldetik, berriz, ez giñun iñolako informazioik jasotzen klasek hasiko zian, noiz, nola ze ikasle atzeritarrak izanik, soluzion bat eskeini barra ziuten. Biño soluzio horik, beti “heldu den asten” alletzekok zian ta aste hori etzen iñoiz alletzen.

**Ane:** Nere kasun, nere hango unibertsitatea pribatua zenez, klasek euki ginitun normal normal. Halere ikasle muimentura arrimatzeko aukera euki nun euskaldun batzuk in giñun erreportaje moduko baten. Bertan eskolak okupatu zittuzten ikaslek, okupazion kontra zauden ikaslek, irakaslek, gurasok elkarrizketatu baikinittun ta egoera bertaotik ezautzeko aukera euki giñun. Oaindik ezta attu beran bo-

# Goizuetararak

# Txilen

Santiago “Cerro San Cristobal”-etik ikusita.



rroka, ta espero dut seittuko dutela ta lortuko dutela, hezkuntzak ez bailuke pribilegio bat izan bar, eskubide bat baizik.

**Unai:** Biño san barra da, ikasle protes-tatik hasi zena, gaur muimentu sozial bilakatu dela, hezkuntza-sistemaz aparte, osasungintza, gizarte zerbitzua, aberastasun banaketa (Txileko aberastasun %80,5 familin arten banatzen da), indar-armatun erradikalizazioa... eztabaidatuz. Aleia, gaur Txilen planteatzen dena ez dela hezkuntza sistema berri bat, baizik eta gizarte eredu berri bat.

• **Txile ezikan, herrialde gehio re bixitatu al ttizute?**

**Ane:** Txile bera hegoalden don Patagoniatik hasi ta iparraldeko desertoño ezautu nun ikasturten zehar bidai desberdinatan. Irteera horien tarten Unaiekin in nun baton bat. Txile bera ezautu ta eurrirako oporratan (udako oporratan) iparraldera abitu giñan. Bertatik aurrena Boliviara irao giñan. Bolivian hilabete inguru irao giñun, ondoren Peruko hegoalden irao ginitun hiru aste inguru, Macchu Picchu, Lima ta Amazonia ezautu nittun. Horiez aparte, Argentinako zati bat ezautzeko aukera re euki nun. Ushuaia ta Patagonia Argentinarra ezautu nittun, iparralderaxio don beste probintzia batez gain.

**Unai:** Biek elkarrekin in giñun biajez aparte, gero, Olaia ta Loinaz aste santutan bixitan euki nittula aprobetxatuz Patagonia izautzera jon giñan ta alde Argentinarrara re bai, Perito Moreno ta ingurutaz gozatzeko.

• **Ze toki bixitatuko ziñukete berriz?**

**Unai:** Niri asko gustatu zitziana... Boliviatik Samaipata ingurua, igual Aritz, Ane, Irati ta Odeiekin han juntatu nitzalako ta nahiz ta 3-4 bat eun bertan pasa ginitun, gauza gehio gustora iñen ginitunan sentsaziokin geldittu nitzan. Herri ttiki bat da, lasaia biño muimentukin igual oain pentsatzen jarri ta Goizutakin bado nolabetteko



Unai ta Ane Machu Picchu-n, Perun.



Perito Moreno glaziarra, Argentina.



Ikasle iraultzan aldarrikapena Ancuden, Chiloe artxiplagon.



Castroko palafitok, Chiloe artxipelagoa.

antza. Jajajaja. Ta Perutik Amazonia, asko gustatu zitizian.

**Ane:** Nik berriz, eia san bixitatzez, berriz gustora leku guzitara bueltatuko nitzake. Biño oaintxe bertan bat aukeratzekotan Santiago aukeratuko nuke. Ez hiri bezela daukin xarman-gatik (nahiz ta badaukin); jendengatik batez e. Leku gehinatan topatu ga jende jator ta eskuzabalakin ta alde hortatik oso eskertua no. Biño Santiago bera 8 hilabetez nere bizileku izan denez, bertan in ttuan launakin oso erlazio estua in dut, beraz, lekua biño gehio, pertsonak bixitatuko nittuzke, munduko edozein lekutan.

### • Zer do Txilek Euskal Herri- eztuna?

**Ane:** Sain nuke gauza bat nahiko nabarmen aldatzen dela: jenden hurbiltasuna. Euskal Herrin askoz hotzok ga pertsona bezela. Han edozein laun edo ezaun salutzekon muxu bat (hemen bi maten dian bezela han bat maten da)



Bertako bi haur, Isla del Solen, Bolivian.

ta besarkada bat maten dia, hemen gehinez "iepa" ta bizkarren zapeteko bat maten dun modun.

**Unai:** Uffff... gauza asko. Biño zerbeste sateko aniztasun kultural izuarria, espontaneo, herrikoia eta kalea, beste edozein espazio bezela ibiltzen duna, inprobisatuz, musikakin, antzerkikin, tribu-urbanokin...

Ta jendea berriz, alaia, oso alaia, irekia, zerbeza batzuk erateko oso onak (bueno, hontatik bada Euskal Herrin e, bai!), lotsabea, ez hain kritikatzaila... oso gertukoa hitz gutxitan.

### • Nola ikusten dute Hego Amerikarrek Europa?

**Unai:** Zerbeste utopikoa bezela. Nahiz ta azkeneko krisialdi honekin herrialde batzuk ez dian ikusten len bezela, oaindik beran erreferentzia izaten seitzzen do; berak biño hobek bagina bezela ta lortu nahieko helburu modun. Saiatzen naiz esplikatzan hori ez dela hain hola.

**Ane:** Perun hizketan eondu nitzan emakume batek saten zunez, bere laun bat Europara torri ta oain millonarioa men da. Holako kasuk aittu ondoren, askontzat amets bat da putzua gurutatu ta alde hontara tortzea, akaso noizbitte beteko den amets bat; ta beste askontzat, utopia bat, ezinezko amets bat. Halare beste asko ta asko daude, baliabide gutxio euki arren horiek erki kudeatu ta ustiatzen ttuztenak ta bizi maila bajuon biño erki bizi dianak.

### • Milaka kilometrok antzeko errealitatek banatzen ttuzte askotan. Maputxeen herrialdeekin kontakturik izandu al ttuzte? Nola bizi dute beran egoera?

**Ane:** Maputxan zonaldea Txileko hegoalde ingurun kokatzen da. Bertara bidai pare bat in nittun ta baton baten euki nun aukera berakin konpartitzeko. Eia san Euskal Herriko egoerakin bado nolabitteko antzekotasuna beran egoerak. Maputxek Txileko indigenak dia. Berak Txileko gobernuakin gatazkan dabilta oaindikan, beran lurrak defendatuz. Beran herrixka baten eoteko aukera euki giñun bidai baten. Indigena haiek espainolan konkista garaian alletu zian asentamentu hartara. Urtez



Bertako indigena batekin bainu goxo bat, Amazonian.



"Monumento Natural El Morado", Cajon del Maipon, Txilen.

urte beran lurra landu izandu ttuzte, beran irtenbidek topatu aurrera itteko ta bizitzeko. Gainera Maputxek fede haundia dute naturangan ta beran lurra oso aberatsak zian alde hortatik. Nekazaritzan aitzen zian janaria lortuz, landare asko landatzen zittuzten sendabelar modun erabiltzeko... Allenden garaien lortu zittuzten eskubide asko ta asko urratuk izandu zian segidan torri zen Pinocheten diktadurakin. Ordutik eskatzen dutena beran lurra bueltzea da, ta hortako negoziatzen seitzen dute gaur eungo gobernuakin. San barra do errepresio bortitza jasaten dutela gobernun partetik. Han e badaude preso politiko dexente beran lurra defentsan kartzelaratu ttuztenak ta jende asko do amenazakin isilarazia.

**Unai:** Torri giñan garaien albistegitan herrialde maputxea borrokan fuerte zebilan ta gaia latentea zen. Gainera dokumental bat estrenatu berri zen, "newen mapuche", zuzendaria hori itteagatik atxilotua eondu zena urte batzutan. Ordun, bai, informazioa as-

ko muitzen zen. Gaur ordea, apenas aitzen da zerbette. Izan e, sain nuke gizarte Txiletarrantzat ez dela lehen-tasunezko zerbette.

Ta nere iritzi propion arabera, errealitate iguala biño gehio, antzeko borroka sain nuke bizi dula Euskal Herri ta herri Maputxek. Bakoitzan aldarrikapen jatorria nahiko desberdina baita: Euskal Herri aldarrikapenak funts politikoa do, herrialde Maputxena zerbette etniko-kultural-lurraldetarra den bittarten. Argi dona da, bien atzen Estatun interes ekonomikok daudela eta beran soberania zalantzan ez patzeko griña.

**Ane:** Gu euskaldunak izanik arrunt ongi etorrik izaten ga beran artera, badakitelako hemen bizi dun egorak e hangokin antzekotasuna badaukila. Argi daukite beran eskubiden alde borrokan seittuko dutela, guk gurengatik ingo dun bezela. Ta beran hizkeran (Mapudungun) saten duten modun: MARRICHIWEW! (Diez veces venceremos).

## TXILE 5 ZENTZUMENEKIN:

### • Ze usain du Txilek?

**Ane:** Usai sakonak, oso usai sakonak daukio Txilek.

**Unai:** Valparaisok mila usai, gutxi onak. Basura usaia, alkantarrilla usaia, zakur usaia... denatetik.

### • Ze doinu?

**Ane:** Doinu alai, "Cumbia" doinua. (Bertako musika).

**Unai:** "piiiii, wuuu-wuuu, hamburgesa de soyaaaa, una mone-dita compdre, sopaipilla rica mihijitooo, piiii..."

### • Ze kolore?

**Ane:** Nik naranjakin lotzen dut, zorientasunakin.

**Unai:** Txile marroi-horixka. Valpok... itxen ta muralatako kolorek.

### • Ze zapore?

**Ane:** Gozoa.

**Unai:** Espezie ta palta gustoa (aguakatea).

### • Ze testura?

**Ane:** Leuna, ni behintzat leun ta goxo ukittu no Txilek.

**Unai:** Lakatz-leuna. Ez galtu zertik.



# Amaia Lujanbiori

## elkarrizketa

**A**maia Lujanbiok 30 urte ditu eta ibilbide oparoa egin du: sari garrantzitsuak irabazteaz gain, tesia bukatua du eta izen haundiko ikerlariekin egin du lan. Azken bi urteetan New Yorkeko Memorial Sloan-Kettering minbizi-zentroan ari da lanean, munduko laborategi onkologiko garrantzitsuenetako batean. Goizuetarra Skype bidez elkarrizketatu dugu, New Yorketik zuzenean.

• **Zein izan da zure ikasketa eta lan ibilbidea?**

Biologia ikasi nun Iruñen, Nafarroko Unibertsitatean, ta gero doktoratua in nun Madriden, Unibertsitate Autonomon. Doktoratua biologia molekularran arlon in nun, minbiziri buruz. Minbizia ikasten nahi nun seittu eta

New Yorkera etorri nitzan. Oain ere minbizia ikertzen ai naiz, genetikan ikuspegitik eta gehienbat xagukin itten dut lana.

• **Zergatik erabaki zinun minbizia ikertzea?**

Eia san, biologian, ia dena gustatzen tzian ta oso irekia nengon ze ikasi erabakitzekeon. Gero pentsatu nun, nere bizia dedikatu behar nunez hortara, ez nula zerbette aukeratu behar niri gustatzen tzialako bakarra; aplikazioen bat izango lukeena izatea nahi nun. Minbizia oso gaixotasun garrantzitsua da ta horregatik erabaki nun hortan sakontzea.

• **Ikerketarena ez omen da bide erraxa. Zaila izan da zauden lekura ailegatzea?**

Iruitzen tzit nere bidea ez dela zaila izandu, bino aldi beren eia da jende guzia ez dela honaino alletzen. Nik us-te bidea erraxtu diala, batetik, gustoko gauza ikasi izanak. Biologia betitikan asko gustatu izandu zit ta ikasi re gustokin itten nun. Gauzak beti erraxo izaten dia gustokin itten battizo. Bes-tetik, suertea izandu nun tesia leku on baten ittea; horrek ate asko ireki zkian New Yorkera tortzeko. Bino bueno, New Yorkera tortzea etzian erraxa in: alde batetik, familia ta launak atzen uzten ttizo, ta hori oso erabaki zaila



da. Bino beste aldetikan, bizi-esperientzia oso ona da ta konturatzen tza hemen krixton maila profesionala dola, benpe, Europan bino haundioa.

## • Zein ikerketa-proiektutan ari zara orain?

Gibeledko minbizia ai naiz ikasten. Iten duguna da gibeledko minbizia xagungan sortu (beti re xagua ikertzea erraxoa da pertsona bino). Xagun minbizin oso oinarrizko gauzak ikeretzen ttu ta gero ikusten du ia hori persona gaixo baten laginatan pasatzen den. Azken baten, xagungan minbizia sortzen du ta saiatzen ga sendatzen, bino nahiko konplikatu da. Ta xagungan konplikatu bada, horrek san nahi do gizakigan oaindik konplikatugoa izango dela.

## • Gibeledko minbizia bereziki konplexua omen da. Zergatik?

Eztikit, kar-kar! Eztikit zergatikan den konplikatu. Benpen, nahiko minbizi-mota grabea da ez delakoz tratamentuikan. Normalen minbizi mota hori dutenak izaten dia o hepatitis dutelakoz lehenotikan edo zirrois dute-lako. Ta minbizia sartzen tzitenean, gibel guzia nahiko izorratua do. Ez da, adibidez, bularreko minbizin bezala: bularren tumorea kentzen tzo ta kitto. Gibelen, ordea, tumorea kentzen tzo ta gelditzen tzizun gibel puska ere ez da oso sana. Ordun, hokina funtzionatzen duna da gibel guzia transplantatzea. Bino karo, kasu batzutan metastasia aurretua baldin bado, behar tzo botika bat. Oain arte kimioterapian ibili dian botika gehinak ez dute eraginkan eta gu itten ai gana da botika berrik bilatu gibeledko minbizintzat.

## • Laster sendabiderik aurkitzea espero duzute?

Ni benpe esperantzakin aitzen naiz. Egia esan, oso arazo konplikatu da. Lehenbizi, bilatu behar tzo botika bat eragina duna. Gero, botika horrek inen dize erresistentzia bat sortu. Ta gero erresistentzia hori, zailtasun hori, zo

igaro beharra. Bino beti jotzen tza aurretzen, pixkanaka-pixkanaka. Nere uestez, gibeledko minbizin, konkretun, zerbette harrapatuko du, ta argi dona da minbizi mota guzitan asko ai dela aurretzen.

## • Nolakoa da zure lan-egun normal bat?

Goizen jeki, zazpik aldera normalen, ta zortzik alderako laborategira jon ta eun bakotxa nahiko ezberdina izaten da. Batzutan, bilera daukiu laborategiko guzik ta eztabaidatzen ttu proiektuk, ideak ta arazok. Beste batzutan izaten ttu seminariok; ikertzaile garrantzitsuk munduko leku guzitatikan tortzen dia ta beran lana azaltzen diute. Hori ongi heldu ziu ideak hartzeko ta gauzak ikasteko. Ta batzutan euna izaten da esperimentuk itten, edo xaguri edo zelulari beira. Ta beste batzutan euna betetzen du ordenadoreko lanakin: datuk analizatzen edo idazten... Askotan itten duna da gure arten hitz ein: esperimentu bat ez bada atetzen, eztabaidatzen du ze soluzio izan dezakeen; euneroko arazo ttikik. Ordu batak alden elkarrekin bazkaltzen du denak, eta gero zazpik zortzik arte. Taberna ttiki bat ere badu lan itten dun lekun, ta osteun ta ostiel batzutan han gelditzen ga pixkot sozializatzeke ta beste laborategitako jendekin harremana itteko.

## • Zer egin dezake norberak minbizia saihesteko?

Lehendabiziko ta inportanteena, tabakoa utzi. Euzkia protekziokin hartu, ta elikadura sana euki. Horrekin birikatako minbizia, azaleko minbizia ta kolonekoa pixkot saihestu littezke. Alkohola re moderaziokin eran. Bino kasu gehinak akats genetiko batetikan sortzen dia, ta ezin tzo deuse in horren aurka. Neurri horiek hartuta, arriskua gutxittu litteke, ordea.

## • Faktore psikologikok aztertzen ttizute?

Guk ez, bino jende askok ikertzen do elikadurak edo psikologiak zerikusia

dun minbizikin. Oso estresatua bazau-de, zure zelulak ere estresatuk daude. Oso ongi demostratua do estresak launtzen dula minbizi gehio sortzen. Zelula normal batek minbizia geldittu inen luke, bino zelula estresatu batek iol ezin do geldittu.

## • Minbizi kasu gehio daude oain lehen bino?

Oain kasu gehio dikizkiu. Baita re, prebentzioko kanpainak daudenez, kasu gehio harrapatzen dia. Nere uestez, globalki kasu gehio eon littezke birikatako minbizingatikan, bino bestela, berdintsu izaten dia. Pasatzen dena da, oain jendea medikura lehenotikan jotzen dela eta minbizia izanez gero, horren berri do. Lehen berriz, iol minbizia zinun eta etzinikin ta, akaso, beste arrazoi batengatik hiltzen tzinan: istripuz, infekzio batekin, ume bat eukitzekon... Oain denak asko bizitzen ga, ta denbo gehio daukiu minbizia agertzeko. Bino aldi beren, sendatu re gehio itten da.

## • Goizueta, Iruñea, Madril, Amsterdam, Bartzelona, New York... Non imaginatzen tzo zure burua etorkizunen?

Gustatuko liake Euskal Herritik gertu eottea. Eztikit non, bino gertu. New York nahiko urruti do. Oso gustora no bertan ta aukera asko dia, ta urte batzutan hori aproxtu nahi dut. Bino gauza asko faltan botzen ttizo ta gustatuko liake pixkot bertaxio jotea.

## • Euskadi Irratia, Ttipi-ttapa, Diario de Noticias, Xapo... Minbizin gaineko zure lanak komunikabide asko erakartzen ttula dirudi.

Nere lanak ez, minbizikin lotua don lan guzik, ez? Denak daukiu laun edo familiarran bat minbizikin, ta badakiu guk ere izan dezakeula. Horregatik, jendek interes asko do minbizia nola saihestu edo ze pronostiko izan dezakeen. Jeneralen sortzen do interes asko minbizik.



ONGI ETORRI  
GOIZUETAN ERE  
EUSKARAZ

## Udalerri Euskaldunen Mankomunitatea

# UEMA

**U**dalerri Euskaldunen Mankomunitatea da UEMA. Goizueta 1993. urteaz geroztik da bertako partaide, orduan erabaki baitzuen Goizuetako Udalak udalerri euskaldunen egitasmo eder eta garrantzitsu honetan parte hartzea. UEMako kide aspaldi samarretik garenez, zuetako askok horren berri izanen duzue, gehiago edo gutxiago. Aurten UEMA eguna Goizuetan eginen dugu, eta ospakizun hori hartuko dugu aitzakia gisa UEMaren inguruko jakingarri batzuk gogoratzeko, eta horren berri ez duenari argibide hauek emateko.

Izenak berak nahiko garbi erakusten digu izana, kasu honetan. Udalerri Euskaldunen Mankomunitateaz ari gara. Herri euskaldunak elkartzen

dituen erakundea da, jakina, baina euskaldun izateaz gainera, euskaraz bizitzeko asmo argia duten herriak biltzen dituela esan behar da. UEMAn sartzea erabaki duten udalek beren funtzionamendua euskalduntzeko konpromisoa hartu dute, eta baita herriko eguneroko bizitzan euskararen erabilera sustatzeko konpromisoa ere, herritarrek euskaraz normaltasunez bizitzeko modua izan dezagun. Hori da, bi hitzetan, UEMaren funtsa.

Mankomunitateak badu dagoeneko 20 urtetik gorako ibilbidea. 1988. ean Euskal Herrian Euskarazek aurkeztutako mozio baten inguruan hasi zen mugimendua, eta Mankomunitatea bera 1991. urtean eratu zen. Ibil-

bide luzea egin du orduz geroztik, euskalgintzarekin lankidetzan aritu da horretarako, eta hasieran udal gutxi batzuk osatzen zuten erakunde hura, 60 udaletik gora eta 200.000 biztanle biltzen dituen Mankomunitatea bihurtu da. Herri horiek guztiak, nolabait esateko, euskararen arnaguneak dira. Euskarak arnasa hartzen du bertan, eta euskarari arnasa ematen diote herri horiek. Eta Goizueta mugimendu horren parte da.

Mankomunitate honek hasiera hasieratik bere buruari jarritako helburuak hiru dira. Honaxekoak:

- Udalerri euskaldunetan herritarrek egiten duten bizitza sozial guztia, publikoa zein pribatua euskaraz izan dadin bideak urratzea.



- Udalerrri euskaldun guztiek bat eginik, euskara nagusi izango den lur-gunea osatzea.
- Udalerrri euskaldunen garapen sozio-ekonomikoa eta soziokulturala bul-tzatzea.
- UEMAko kide izateko herri euskal-duna izan behar da. Alegia, gutxie-nez herritarren % 70ak euskalduna izan behar du. Hori ezinbesteko baldintza da. Horretaz gain, jakina, oso garrantzitsua da udalak UEMaren helburuekin bat egitea, euskaraz lan egiteko eta zerbitzua emateko ahale-gina egiteko konpromiso argia iza-tea, eta Mankomunitatean sartzeko erabakia hartzea.

### Hauek dira gaur egun UEMAn sartuta dauden herriak:

- **Araban:** Aramaio
- **Bizkaian:** Bermeo, Busturia, Ajan-giz, Muxika, Gatika, Aulesti, Amo-rotto, Gizaburuaga, Berriatua, Ma-llabia, Atxondo, Izurtza, Otxandio eta Artea.
- **Gipuzkoan:** Aduna, Aizarnazabal, Alegia, Alzaga, Altzo, Amezketta, Anoeta, Antzuola, Arama, Azpeitia, Baliarrain, Beizama, Belauntza, Bergara, Deba, Elduain, Elgeta, Ez-kio-Itsaso, Gaintza, Gaztelu, Ikazte-gieta, Irura, Itsasondo, Leaburu-Txarama, Lizartza, Mutriku, Oiar-tzun, Orendain, Oresa, Orrio, Usurbil, Zaldibia, Zestoa eta Zumaia.
- **Nafarroan:** Araitz, Arantza, Arbizu, Areso, Basaburua, Bera, Etxalar, Etxarri Aranatz, Goizueta, Larraun, Leitza eta Urdiain.

2011ko UEMA eguna, Bergaran



Guztira 61 udalerrri dira. 2012ko ekainean, nolana ere, beste bost herri sartuko dira Mankomunitatean, eta 66 udalerrri izanen gara ordutik aurrera. Hauek dira laster gu-rekin batera izanen ditugunak: Ondarroa eta Mañaria (Bizkaia), Getaria eta Oñati (Gipuzkoa) eta Igantzi (Nafarroa).

Herri asko, ikusten denez, nahiz eta kopuru hori oraindik ere handi-goia izan daitekeen. Gauzak ongi joa-nez gero, Mankomunitateak hazten jarraituko du, eta euskararen lurral-dea osatuz eta sendotuz joanen gara. Euskararen etorkizuna ziurtatuko badugu, ezinbestekoa da herri euskaldun horiek guztiak elkartzea, bi-zirik mantentzea, eta euskararen ar-nasgune sendo bihurtzea. Ahalegin horretan ari da UEMA, hain zuzen ere, baita Goizuetako herria ere, eta apustu horretan bat egin behar dugu herriko eragile eta herritar guztiok.

Eta hori guztia ezagutzera emate-ko eta indartzeko, hain zuzen ere, ospatzen dugu urtero UEMA eguna. Aurten, esan bezala, Goizuetan egi-nen dugu, ekainaren 9an, eta hau da egun horretarako Goizuetan sortu den lantaldeak prestatu duen egita-raua:

## UEMA EGUNA

### EKAINAK 9

- **10:00.** UEMAko udaletako ordezkarien batzarra udaletxean
- **11:00–14:00.** Haurrentzako puzgarriak, jokoak eta tailerrak
- **11:30.** Herriko etxeak ezagutzeko bisita gidatua
- **13:30.** UEMA eguneko ekitaldi nagusia
- Goizean zehar artisauak, dantzariak eta musikariak herrian zehar
- **14:30.** Herri bazkaria
- **16:00–18:00.** Haurrentzako puzgarriak
- **19:00.** Dantzaldia: Gabezin
- Gauean Kontzertua Gaztetxean



# Hitz zahar berri Baietz asmatu!

**G**oizuetan euskara bizirik dago. Eta bizirik dagoena aldatu egiten omen da, baita hizkuntza ere. Aldaketa horretan, hitz batzuek esanahia aldatzen dute,

eta beste batzuk ahaztu egiten zaizkigu. Zein oroitzen da ondoren heldu diren hitzez? Ia beren esanahia asmatzeko gai zaren!

1. zokana:
2. iada:
3. orgona:
4. zimak:
5. txirikorda:
6. tototxa:
7. mototxa:
8. kolastua:
9. zurda:
10. ziristilua, ziristilloa:
11. perikia:
12. palarra:
13. zartana:
14. gingiluk:
15. iztape-trapua:
16. martinitua:
17. zorroa:
18. minaserea:
19. metaxorroa:
20. marrukoa:
21. talaburnia:
22. talamantenua:
23. (a)paparrutzak:
24. putzada:
25. dumbuluk:

- lazoa edo korapiloa
- gorotz hondarrak biltzeko egurrezko tresna
- suaren ondoan paratzeko burnia, taloak xuabe egiten segitzeko erabilia
- zapaburuak
- kojoa (pertsonek nahiz animalia)
- bihorraren lepo gaineko ilea
- moñoa
- barrenera sartua, zanpatua dagoena
- gaztarekin egindako taloa
- saski ttikia, kirtenik ez duena
- aziendatan, tripa barrenera sartua, gose edo egarriaren eraginez
- taloak erretzeko zartari xapala
- ilea nahastua
- txukundu gabeko ileak
- logalea
- koleta
- gaztainak erretzeko tresna
- trentza
- boltsa
- emakumeek hilerokorako erabiltzen zuten zapia
- euri uran depositua
- belarra lehortzeko montoi ttikiak
- ekaitz-lainoak
- harririk, hondarra... eta abar biltzeko txapazko tresna
- ardik ta antxumek lepotik zintzilik dituzten bi koxkor

## Eta azpiko esaera horiek nori esanzen zenizkioke?

- Mahaietik txistu
- (Ze, ze?) Zertzeta burruntzin puntan erreta
- Politta zaude zu ezpañak lumakin inta eotteko

ERANTZUNAK

1. zokana: barrenera sartua, zanpatua dagoena  
 2. iada: aziendatan, tripa barrenera sartua, gose edo egarriaren eraginez  
 3. orgona: kojoa (pertsonek nahiz animalia)  
 4. zimak: txukundu gabeko ileak  
 5. txirikorda: trentza  
 6. tototxa: koleta  
 7. mototxa: moñoa  
 8. kolastua: ilea nahastua  
 9. zurda: bihorraren lepo gaineko ilea  
 10. ziristilua, ziristilloa: lazoa edo korapiloa  
 11. perikia: gorotz hondarrak biltzeko egurrezko tresna  
 12. palarra: harririk, hondarra... eta abar biltzeko txapazko tresna  
 13. zartana: gaztainak erretzeko tresna  
 14. gingiluk: ardik ta antxumek lepotik zintzilik dituzten bi koxkor  
 15. iztape-trapua: emakumeek hilerokorako erabiltzen zuten zapia  
 16. martinitua: logalea

ESANAK:

- Mahaietik txistu: berandu elorri denari  
 - (Ze, ze?) Zertzeta burruntzin puntan erreta: enteratzen ez denari  
 - Politta zaude zu ezpañak lumakin inta eotteko: asko jaten duenari

17. zorroa: boltsa  
 18. minaserea: saski ttikia, kirtenik ez duena  
 19. metaxorroa: belarra lehortzeko montoi ttikiak  
 20. marrukoa: gaztarekin egindako taloa  
 21. talaburnia: taloak erretzeko zartari xapala  
 22. talamantenua: suaren ondoan paratzeko burnia, taloak xuabe egiten segitzeko erabilia  
 23. (a)paparrutzak: zapaburuak  
 24. putzada: euri uran depositua  
 25. dumbuluk: ekaitz-lainoak







## EZETZ ASMATU

Gaur egun milaka argazki egin eta pilatzen ditugu di-da batean. Beste garai batean, ordea, argazkia egitea ez zen hain kontu arrunta izaten. Irudi horietako batzuetan ikusten dituguentzat, ziur asko, nahikoa gertakari garrantzitsua izanen zen argazkian ateratzea. Beste batzuk, bistan denez, berriagoak dira.

Hartzen al diozu argazkiko horiei inoren antzik? Ez? Ziur zaude? Bai? Horretaz ere ziur al zaude? Nor izan litezke, edo noren senide? Ongi begiratu, eta ez baduzu asmatzen, hasi galdetzen.



# Lehen aldia

**A**ldizkari bat irakurtzen ari nintzela, atal batean honelako galdera egiten zuten: Nolakoa izan zen zure lehen sexu-harremana? Pentsatzen gelditu nintzen ea nerea nolakoa izan zen eta urte batzuk atzera joan nintzen.

Nork ez du amestu nolakoa izatea gustatuko litzaigukeen? Erreferentzia bezela amodiozko filmak edo ipuin erromantikoak ditugu, eta horiekin fantaseatzen dugu. Kanpaiak entzungo ditugula pentsatzen dugu eta toki erromantiko batean izango dela amestu, gaztelu batean agian...

Nere lehen sexu-harremana zeharo diferentea izan zen, nik pentsatua nuenetik. Nik ohe haundi batean izatea nahi nuen, sabairik gabeko gela batean, izarrak ikusteko edota eguzkia gordetzen ikusteko; gela kandelaz beteta, misterio aire bat emateko; musika gozo eta erromantiko bat, girotzeko eta erlaxatzeko; afari dotore bat, mahaitiki batean, mutil gihartsu eta elegante batekin. Nere buruan hortxe neukan dena programatua; polita, ezta?

Herrian festa zen eta nere kuadrilak afaria antolatu zuen bertako taberna batean. Ederki afaldu genuen eta garrardo batzuk edanez eta nahikoa dantzatzuz, aurrera zihoan gaua. Aspaldi ikusi ez nuen laguna topatu nuen, ttitikako lagun mina. Denbora asko zen ez nekiela ezer bere biziaz eta gaurkoztzen jardun genuen. Jendea dantzan zebilen eta bultzada batekin hurbildu gintuzten, bere hatsa nere masailan nabaritzen nuen eta pentsatu gabe, hura muxukatzen hasi nintzen. Hark ahoa ireki eta gure mingainek elkarukitu zutenean, inguruko jendetza desagertu egin zen, beno, niri hala iruditu zitzaidan!

Muxu indartsuak ziren, ni gero eta beroago nengoan eta jertsea kendu nuen, gure ahoak itsatsita zeudela ematen zuen, ezin nuen nere mingaina aho gozo hartatik atera. Bere kamixe-

taren azpitik eskua sartu eta bere gorputzeko berotasuna nabaritu nuen. Belarrira zera esan zidan: Larrua joko dugu? Bat-batean begiak ireki eta gelditu egin nintzen, hitz potoloak ziren haiek! Eta nere plan erromantikoa? Gure begiradak gurutzatu ziren eta ni lotsatu egin nintzen, eta begirada baztertu. Goxo-goxo kokotzetik hartu eta burua altxatu zidan begietara begiratzeko, eta belarrira berriro: Lassaaii, ni naiz! Hitz magikoak balira bezala, parra murrirxa egin nion eta pikutara nere plana!! pentsatu nuen eta besarkada eman nion.

Eskutik hartu ninduen eta jende pilo haren artetik komonera eraman ninduen. Arropa azpitik nere titiak bilatu zituen eta mingainarekin titi muturrak miazkatu zizkidan, sekula ez nuen pentsatuko hainbeste goza zitekeenik, inoiz sentitu ez nituen gauzak ziren haiek! Alua busti-bustia neukan eta esku bero bat nabaritu nuen gona azpitik izterrak ukitzen. Alua ukitu zidanean gozamen oihu bat egin nuen, eta klitoria aurkitu zuenean, momento horretan ez nintzen nere buruaren jabe, sentsazio haien esklabu baizik. Nik ere plazera eman nahi nion eta galtzetatik eskua sartu eta bere zakila ukitu nion, tente eta gogorra zuen. Gora eta behera eragin nion torpe xamar, baina beraren gozamen arnasa entzuten nuen eta bide onetik nihoala pentsatu nuen.

Zakar xamar besoetan hartu ninduen eta zakil indartsu hura nere aluan nola sartzen zuen nabaritu nuen. Garraxi egin nuen, gora eta behera mugitu ninduen panpin baten modura. Bere giharretako tentsioa nabaritzen nuen, nere karga zela medio, eta horrek gehiago eszitatzen ninduen. Arnasetuka, gora eta behera, lepotik ezin helduta nenbilen, gero eta azkarrago mugitzen ninduen eta bat-batean, garraxi egin zuen bizpahiru aldiz eta gelditu egin zen. Arnasari ezin eutsiz besarkatuta gelditu ginen momentu batez eta berehala konturatu ginen norbait ate joka ari zela; nola edo hala jantzi eta atera ginen handik. Jendea kexu zen, baina gu paradisuan egonak ginen eta bost axola!!!

Orain heldutasunean, eta bizitako guztiarekin, konturatzen naiz zentzuek (usaimena, ukimena, ikusmena, dastamena) funtzio handia dutela sexu-harremanetan eta egun hartan horiek denak eraldatuta zeuden garagar doaren poderioz. Orain ez nuke fantasiazko ipuin hura nahiko eta ezta parranda gau batean izatea ere, sexu harreman batek merezi duelako modu erlajatu batean izatea eta baita errealista izatea ere.

Baina han bizitu nituen gozamen eta sentsazio berri haiek ez nituzke batera aldatuko, ezta mutila ere!! Tokia eta modua besterik ez.



# Zertik iduitzen zizo deitzen zila Txino auzoa?



**Eider Zugarramurdi**

Herritik kanpo daolako.



**Rosa Mª Zabaleta**

Herritik urrutia gelditzen delako.



**Igor Apezetxea**

Goizuetako auzorik berexina delako, erreka besterik ez delako, eta obenak han bizi galako.



**Mª Jose Aizpuru**

Jende gehiena doan auzoa delako, (bizirik eta hilak), kasis txinan hainbeste.



**Aritz Zubiri**

Inork ezautzen ez tuz jendea bizi izando delako eta orain ere....



**Joxe Miel Loiarde**

Txinok bizittu zialako seuraski.



**Makatxa**

Denak ttirik galako txinok bezala.



**Elena Gartzia**

Auzo hortakok beti parrez ari dira eta begirik txinok bezala geldittu zaizkitez.



**Esteban Arozena**

Hiritako auzo zahar eta marginal xamarrek (prostituzioa ere bertan kokatzen da) barrio txino izena jasotzen dute. Izen hori hartuz, Goizuetan eta lagun artean broman izen hori deitzen zaio auzoari.



**Jose Ramon Etxegia**

Txino-Kotxino, baztertutik eta zikin xamarrek (arropa eta jazkera) inportantzik eman gabe.



# ZURE TXANDA

## Ainhoa Zabaleta



**Zenbat urterekin hasi zinan musika eskolan?**

9 urterekin gutxi gorabehera

**Ze instrumentu dakizkizo jotzen?**

Pianoa, gitarra eta panderoa erdizka

**Talderen baten jotzen al duzu?,  
Zeinetan aritu zara?**

Gabezinen jotzen dut. Goizutako elektrotxarangan...

**Zenbat kontzertu jotzen dituzute urtean?**

40 inguru, batzutan azpitik bestetan goitik

**Zein da jo duzun plazarik onena?**

Lesakako plaza San Ferminetan

**Asko ligatzen al da musikoak izanta?**

Buu!! Zakarregi ondutzen da jendea

**Krisia nabaritzen al da?**

Bai, bastante gañea

**Musikatik bizi al zara? Bizi al daiteke?**

Momentuz bai (gurasokin bizi naiz ta...) Eztut uste, kapritxotako dirua atetzen da biño...

**Ametsik bai al duzu musikan inguruan?**

Nere ametsa izango litzake, estilo diferenteko musikakin CD-n bat grabatzera eta asko saltzera. Ja, Ja, Ja.

## Dani Narbarte



**Zenbat urterekin hasi zinan musika eskolan?**

10 urterekin gutxi gorabehera.

**Ze instrumentu dakizkizo jotzen?**

Trikia, panderoa, gitarra eta perkusioa.

**Talderen baten jotzen al duzu?,  
Zeinetan aritu zara?**

Kolokan, Deus, Xapo, Laiotz

**Zenbat kontzertu jotzen dituzute urtean?**

60 gutxi gora behera

**Zein da jo duzun plazarik onena?**

Hernaniko tilosetan

**Asko ligatzen al da musikoak izanta?**

Batez

**Krisia nabaritzen al da?**

Bai, dexente, urritik kobratzeko esperon condu ga udal batetik ...

**Musikatik bizi al zara? Bizi al daiteke?**

Bai, jotzetik eta erakustetik. Bai

**Ametsik bai al duzu musikan inguruan?**

Gero eta gutxio. Nere disko bat ateri nere musikakin.